Petronorrek, Lindek eta 360 Gasesek 30 milioi euro inbertituko dituzte enpresa industrial berri batean

- ONA Bizkaia du izena enpresa bateratuak (*joint venture*). Petronorrek, Lindek eta 360 Gasesek partaidetza bera izango dute bertan, eta Muskizko Petronorren egungo instalazioetan garatuko du bere jarduera.
- Linderen egoitza nagusia Erresuma Batuan dago, munduko liderra da gasen sektorean, eta industriaren, medikuntzaren eta elikaduraren arloetan erabiltzeko oxigenoa, nitrogenoa eta argona eskaintzen ditu, besteak beste.
- 360 Gases euskal enpresak Zierbenan (Bizkaia) du egoitza, eta Fagor Ederlanek partaidetza du bertan. Industriarako, sendagaietarako eta elikadura-kalitaterako mota guztietako gasak fabrikatu, eraldatu eta banatzen ditu.
- Lanak 2027ko lehen seihilekoan hasiko dira, eta instalazioa 2029an egongo da erabat erabilgarri. Hala, jarduerak zuzeneko 12 lanpostu berri eta gutxienez beste horrenbeste zeharkako lanpostu sortuko ditu.
- Aireko gasak (oxigenoa, nitrogenoa eta argona) ekoitziko ditu plantak, eta, Petronorren findegian ez ezik, Euskadiko ekoizpen-sareko beste enpresa batzuetan eta inguruko lurraldeetan ere erabiliko dira.
- Instalazio berriak euskal ekoizpen-sarearentzat funtsezkoak diren industria-gasen horniduraren autonomia eta segurtasuna indartzen lagunduko du.
- Ekimenak Petronorren industria-plataforma, Linderen teknologia / nazioarteko hedadura eta 360 Gasesen tokian jarduteko eta proiektuak gauzatzeko gaitasuna uztartuko ditu.

Bilbo, 2026ko azaroaren 2a. Petronorrek, Lindek eta 360 Gasesek ONA Bizkaia enpresa bateratua eratzeko akordioa sinatu dute gaur goizean. Enpresak airea bereiziz ekoitziko ditu gas berriztagarriak, eta gas horiek Petronorren, Euskadiko ekoizpen-sareko beste enpresa batzuen eta inguruko lurraldeetako enpresen industria-prozesuetan erabiliko dira.

Planta berria Petronorren egungo instalazioetan egongo da. 30 milioi euroko inbertsioa egingo da bertan, eta zuzeneko 12 lanpostu berri eta gutxienez beste horrenbeste zeharkako lanpostu sortuko dira. 2027ko lehen seihilekoan hasiko dira eraikuntza-lanak, eta planta 2029an egongo da erabat erabilgarri; hala, aurreikuspenen arabera, guztira 60 pertsonak hartuko dute parte zuzenean bi urteko iraupena izango duten eraikuntza-lanetan.

ONA izenak proiektuaren funtsa islatzen du. Batetik, euskarazko esanahiari egiten dio erreferentzia, balioarekin, konfiantzarekin eta lurraldearekiko konpromisoarekin lotuta; eta, bestetik, jardueraren muina diren hiru aire-gasen inizialak biltzen ditu: Oxigenoa, Nitrogenoa eta Argona.

Petronorrek, Lindek eta 360 Gasesek partaidetza bera dute industria-lankidetza honetan. Linde aireko gasak (oxigenoa, nitrogenoa eta argona, besteak beste) fabrikatzen eta banatzen espezializatuta dago, eta gas horiek industria- eta elikadura-arloetan erabiltzen dira, besteak beste. 360 Gases euskal enpresak, berriz, industriarako, sendagaietarako eta elikadura-kalitaterako mota guztietako gasak fabrikatu, eraldatu eta banatzen ditu. Aliantzak nazioarteko eta tokiko gaitasunak uztartuko ditu, eta industria-gasak –industriarako ezinbesteko lehengaia– eskainiko dituen bazkide berri bat jarriko du industria-sarearen esku.

Ekimenak Petronorren industria-plataforma, Linderen teknologia, esperientzia eta nazioarteko hedadura eta 360 Gasesen tokian jarduteko eta proiektuak gauzatzeko gaitasuna uztartuko ditu; eta, hala, euskal industriarentzat funtsezkoak diren industria-gasen horniduraren autonomia eta segurtasuna indartuko dira. Gasak ekoizteko, iturri berriztagarrietako energia erabiliko da, eta, beraz, ekoitzitako gasei lotutako karbono-aztarna ezabatu eta hornidura jasangarriagoa eta lehiakorragoa eskaini ahal izango zaio euskal industria-sare osoari.

José Ignacio Zudaire Petronorreko kontseilari delegatuaren esanetan, «akordio honek agerian uzten du enpresen arteko lankidetza eta bakoitzaren gaitasun osagarriak batzea ezinbesteko ekintzak direla proiektu industrial berriak bultzatzeko. Lindek proiektu handietan duen nazioarteko esperientzia, 360 Gasesek merkatuari buruz duen ezagutza eta Petronorren industria-gaitasunak oinarri hartuta, ONA Bizkaiak funtsezko ekimen

berriak garatzeko gaitasuna izango du. Izan ere, ekimen horiek industriaren sektorearen lehiakortasuna eta berrikuntza bultzatu eta enplegua sortuko dute».

Linde Gas Españako zuzendari Baltasar Palancaren arabera, «Bizkaiak baldintza bikainak ditu etorkizunera begirako industria-proiektuak garatzeko, industria-sare sendoa eta berrikuntzaren aldeko ingurunea baititu. ONA Bizkaiak agerian uzten du gure teknologia eta industria-gasen arloan dugun esperientzia aplikatzeko gai garela, eta eskualdeko industriari funtsezko gasen hornidura fidagarria eta eraginkorra bermatu diezaiokegula».

Jesús Escudero 360 Gaseseko kontseilari delegatuak adierazi duenez, «ziur ONA Bizkaiak euskal industria indartzen lagunduko duela: funtsezko industria-gasen horniduraren segurtasuna sendotuko du, eta hazteko, inbertitzeko eta enplegua sortzeko aukera berriak ekarriko dizkio lurralde osoari. 360 Gases enpresarentzat, gainera, proiektu hau garrantzi handiko urrats estrategikoa da. Lehen mailako industria-azpiegitura baten garapenean parte hartzeko aukera emango digu –bazkide bikain hauekin batera–, eta, horren bidez, balio-katean hobeto integratuko gara eta bezeroei hornidura lehiakorra, segurua eta jasangarria eskaintzeko dugun gaitasuna indartuko dugu».

Petronorri buruz

Petronor Bizkaiko industria-eragile nagusia da: 940 pertsonari ematen die lana zuzenean, eta 6000 pertsona baino gehiagori, berriz, zeharka. Azken bost urteetan, 1200 milioi eurotik gora inbertitu eta 201 pertsona kontratatu ditu.

Petronorrek Bizkaiari egiten dion ekarpena Bilboko Portuko trafikoan ere islatzen da, trafiko horren % 40 konpainiari baitagokio. Gainera, foru-ogasunek guztira biltzen dutenaren % 5,5 Petronorren jarduerari dagokio. Petronorrek 936 milioi euroko ekarpena egin du, eta zenbateko hori hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatzen da.

Linderi buruz

Linde mundu-mailako enpresa liderra da industria-gasen eta ingeniaritzaren arloetan, eta 2025ean 34 000 milioi dolarreko salmentak burutu zituen. Mundua egunetik egunera produktiboago egitea du helburu, eta, horretarako, kalitate handiko soluzioak, teknologiak eta zerbitzuak eskaintzen ditu bezeroen arrakastari laguntzeko eta planeta zaindu, deskarbonizatu eta babesteko.

Lindek hainbat sektoretan eskaintzen ditu zerbitzuak: kimika eta energia, elikagaiak eta edariak, elektronika, osasungintza, manufaktura, metalurgia eta meatzaritza. Besteak beste, konpainiaren industria-gasak eta teknologiak erdieroaleak fabrikatzeko, oxigeno sendagarria hornitzeko, hidrogeno garbia ekoizteko eta karbonoa atzitzeko erabiltzen dira; izan ere, azken horrek berotegi-efektuko gasen emisioak murrizten laguntzen du.

360 Gasesi buruz

Tres Sesenta Gases, SA euskal enpresaren egoitza Bilboko Portuan dago, Zierbenako udalerriari (Bizkaia) dagokion eremuan, eta Fagor Ederlanek (Mondragon Korporazioa) partaidetza du bertan. Industria-, sendagai- eta elikadura-gasak fabrikatzen, eraldatzen eta banatzen espezializatuta dago. Konpainiak ekoizpen-instalazioak ditu Bizkaian eta A Coruñan, eta hainbat industria-sektoretarako soluzioak garatzen ditu bertan. Horretarako, ekoizpen-gaitasuna, jarduteko arintasuna, bezeroekiko hurbiltasuna eta bere jarduera hartzen duten lurraldeetako industria-garapen jasangarriarekiko konpromiso sendoa uztartzen ditu.

www.petronor.com

www.linde.com eta www.linde-gas.es

V K Comunicación

Informazio gehiago:

Virginia Knörr Barandiaran
944 01 53 06 / 629 156 031
virginia@vkcomunicacion.com